



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

2009ko EKINTZEN BILDUMA

BILAN D'ACTIVITES 2009

2010ko apirilaren 24eko
biltzar nagusia Baionan

*Assemblée générale
du 24 avril 2010 à Bayonne*

Euskal kultur erakundea - Institut culturel basque

Lota Jauregia - Château Lota - BP 6

64480 Uztaritze - Ustaritz

Tel. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84

www.eke.org



AURKIBIDEA

- Euskal kultur erakundeko barne antolaketa 4
- Euskal kultur erakundeko ekintzak : 6

Euskal kultur erakundeko barne-antolaketa

* - * - * - * - *

BILTZAR NAGUSIA :

280 kideek osatzen dute : 134 kultur elkarte eta 146 herri (Euskal kultura sostengatzen duen Sindikataren partaide direnak) eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

Euskal elkarten ordezkariak :

Xabi IBARBOURE, Frantxua COUSTEAU,
Paxkal INDO, Patrick LARRALDE, Beñat CHASSEVENT,
Ximun CARRERE, Peio SOULE, Michel ORONOS.

Legezko ordezkariak :

Estatua :

Philippe REY (prefeta),
Eric MORVAN (suprefeta),
Claude JEAN eta Jean-François SIBERS (DRAC Aquitaine).

Akitania lurraldeko kontseilua :

Jean-Joseph LISSAR (Lurraldeko kontseilaria),
François MAITIA (Lurraldeko kontseilaria),

Pyrénées-Atlantiques-etako Kontseilu Orokorra :

Max BRISSON (Biarritzeko kontseilari orokorra).
Kotte ECENARRO (Hendaiako kontseilari orokorra)

Euskal kultura sostengatzen duen Herriarteko sindikata :

Paco ARIZMENDI (Donibane-Garaziko hautetsia)
Jean-René ETCHEGARAY (Baionako lehen axuanta).

Pertsonalitate kalifikatuak :

Jean-Louis DAVANT, Mikel ERRAMOUSPE,
Xabier ITZAINA, Ramon ETXEZARRETA

Beti gomiatuak :

Erramun BACHOC (hizkuntzalaria),

Jean-Claude IRIART eta gero
Estebe EYHERABIDE (Euskararen erakunde publikoaren zuzendaria)

Konduetarako komisarioa :

Michel FAGOAGA

BULEGOA :

Lehendakaria :..... Mikel ERRAMOUSPE

Lehendakariordea : François MAITIA

Diruzaina : Frantxua COUSTEAU

Idazkaria : Beñat CHASSEVENT

TALDE PROFESIONALA :

Zuzendaria : Pantxoa ETCHEGOIN

Zuzendariordea : Daniel LANDART

Sail arduradunak :

Etnologia - ondarea : Terexa LEKUMBERRI

Artxibo soinudunen baloratzea : Maite DELIART

Euskarazko kultur animazioak

eta Euskal munduak erakusketaren koordinazioa : Pantxika MAITIA (behar orduan)

Kultura bitartekaritza : Jakes LARRE

Ikusgarrigintza : Frank SUAREZ

Kontabilitatea / Idazkaritza : Maddalen ERROTABEHÉRE-DUPUY
(4 egun astean)

Idazkaritza / Euskarazko itzulpenak : Frederik BERRUET

Proiektu berezientzat :

1) « Euskal munduak » erakusketa..... Mathieu VIVIER
(urriaren 7tik 23ra)

**2) « Baxenabarreko herriei
buruzko datu bilketa »** Bixente LOHIAGUE
(urtarrilaren 1etik otsailaren 28ra)

3) « Eleketa » programa eta erakusketa:... Mendi ESTEBAN
(agorrilaren 3tik irailaren 30era)

**4) Euskal kulturaren
baliabide iturri numerikoa** Aurélie POUSSET
(maiatzaren 7tik agorriaren 31ra)

1.1/ Euskal Herriko ahozko ondarearen bilketa, zainketa eta baloratzea

Nahiz eta ahozko ondarearen bilketa 2007an abiatu zen, 2009an departamenduko Kontseilu Orokorrak operazio honen obragintza beregain hartu du, obralaritza Euskal kultur erakundeari utziz.

Ahozko ondarearen bilketa

Hogeita hamasei lekukotasun bildu dira 2009an, hauetarik 26 Euskal kultur erakundearen eskutik ; beste 10ak Xabier Itçainak Itsasuko Herriko Etxearen kondu egin bidegrabaketak dira. Alabainan Herriko Etxe honek, filma ttiki baten egiteko asmoarekin, hamar lekukotasun filmarazi dizkio Aldudarrak Bideori, Xabier Itçainaren laguntzarekin. Euskal kultur erakundea herriko etxearekin harremanetan sartu da hamar lekukotasun horiek bere fondoan sarrarazteko, muntaketa eta tratamenduaren truke.

36 lekukoetarik 11 Donapaleuko kantonamendukoak dira :

- Jean-Pierre Lapouble (Arberatzte), André Narbaitz (Arruta), Maddi Auvray (Bitiña), Odette et Katti Lucu (Bitiña), Jean-Claude Mailharin (Amenduze), Jean Urruspil et Dorothee Maiharin (Donapaleu), Paxkal Biscay, Pettan et Germaine Dufau (Behauze), Xeñan Belleau (Garruze), Frantxoia Belleau (Amorotze-Zokoze).
- Zortzi lekuko Iholdiko kantonamendutik datoz : Beñat Etcheverry, Marie-Jeanne Otharan, Aña Idieder, Henri et Mathilde Haran, Jeanne Etchegoinberry et Marie Dagorret (Irisarri), Pierre Salles (Izura), Piarre Petoteguy (Jutsi).
- Beste lau lekuko Garazi-Baigorrikoak dira : Martial Inchauspé (Donibane-Garazi), Fanny Arrabit (Bidarra), Bettiri Argain et Antoinette Lekumberri (Ortzaize).

2009n bilketa ideki dugu ere

- Lapurdira buruz bi lekukoekin Ahetzen (Kattin Miranda et Germaine Carrera) eta hamar Itsasun (Xabier Itçainak galdezkatu dituenak : Dominika Aguerre, Mayi Poulou, Pascal Paris, Dominika Héguy, Janette Elissetche, Simone Larronde, Jeanne et Manex Olhagaray, Gratien Larronde, Paul et Marceline Harispourou, Norberto Aguerre),
- Xiberoari buruz lekuko batekin : Johaño Etchebarne, Arrazolatzen artzain dagoena (Irati).

Ahozko ondarearen kontserbazioa

Bidegrabaketak kontserbatuak izateko, urrats hauek segitu behar dira :

Numerizazioa, muntaketa eta sailkapena

Numerizatu eta, elgarrizketa bakoitza sekuentzian zatitua da ; sekuentzia bakoitza identifikatzen da kodigo eta izenburu bat emanez, eta bilduma ttipi bat eginez.

Elgarrizketa bakoitzari lotu informazioen sartzea

Sekuentzia bakoitzari (kodigoa, izenburua eta bilduma) edo elgarrizketari orokorki lotu informazioak (galdezkatzaileak fitxa tekniko batean idazten dituenak) sartuak dira :

- *Departamenduko artxiboentzat, Arkhéia softwarearen bidez.*

Artxibategi guziek erabiltzen duten software honi esker, informazio guziak egituratuak eta sailkatuak dira, datu-base bat osatzen dutela. Honek bere baitan dauzka, gaurregun, 1492 bideo sekuentziei buruzko informazio guziak.

- *Euskokultur Fundazioa eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarentzat, Excel softwarearen bidez*

Goi Nafarroko bi instituzio hauek EKE-k daraman bilketaren partaide dira haste hastetik (bilketa operazio berdina eramaten dutelako beren eremuan).

Helarazten dizkiegun informazioek beren datu-basea eta webgune berezia osatzen dituzte.

Ondarearen hurbilpena

(Ahetzeko latsarriaren zaharberritzearen kariatara)

Herriko latsarria edo iturria zaharberritu nahian, Ahetzeko Herriko Etxeak xantier berezi bat martxan ezarri du, formakuntza moduan. Partaide desberdinak lotu ditu proiektu honentzat, langileak atxemaiteko, formatzeko bai eta ere dirua ekartzeko : Euskal Gazteen Etorbizunari buruzko Tokiko Misioa (mandatzailea), Eskualdeko Kontseilua eta Kontseilu Orokorra (finantzatzaileak), Etxarriko Formakuntza Zentroa, Eraikuntza Ofizioetako Angeluko Lankideen Federazioa eta Euskal Kultur Erakundea (hiruak formatzaile gisa), Ahetzeko eskolak eta adinetakoak. Xantierra 2009ko irailean hasi zen, 2010eko maiatzean bururatuko da. Euskal kultur erakundeak ondareari buruzko sentsibilizazioa eskaintzen die hargin eta zurgin gazteei, latsarria erabili ohi zuten adineko pertsonekin, lehen mailako ikasleekin, bai eta herriko zein inguruetako ondarearekin harremanetan jarritz

Xiberoko ahozko artxiboari buruzko lana

Sü Azia elkarrekin, Marie Hirigoyen etnomusikologoari esker, lan berezi bat darama azken urte hauetan artxibaturik dauzkan kantu andana bati buruz (400 ordu orotara):

- fondo hori behar den bezala numerizatua izan da,
- sekuentzian zatitua eta sailkatua,
- artxibatua izateko gisan, informazio guziak datu base batean sartuak izan dira.

Eskubideen eskuratzeko ere lan bat eginik izan da.

Egitasmo honek 2010ean segitu behar luke. Hiru partaide instituzionalek laguntzen dute : Departamenduko Kontseilu Orokorra, Xiberoko herriarteko sindikata eta Euskal kultur erakundea.

JM Barandiaran-en "Bosquejo Etnografico » de Sara obraren itzulpena

Espainolezko obra honen euskarazko eta frantsesezko itzulpenak 2010ean eskuratzen ahalko dira (bi bertzio izanen dira). Frantsesezko itzulpena 2008an egin izan bazen, 2009ko lan handiena euskarazko bertzioari buruz izan da : itzulpena bukatu, berriz irakurtu eta zuzenketak egin, Barandiaranen euskara normalizatu. 2010ean, euskarazko eta frantsesezko itzulpen horien estrena urtea izanen da...

Ikuskaritza eta aholkularitza azkartu

- EKE-ko ondarea arduradunak parte hartu du Bankako meategien baloratze proiektua lantzen hasi den talde teknikoan.
- Pertsona horrek berak bildu eta kudeatu du, urtean zehar, EKE-ri lotua den Euskal ondarearen batzorde iraunkorra : hau hiru aldiz bildu da 2009an. Tratatu izan den gaietarik bat : itsas ondarea.
- Euskal ondarearen batzorde iraunkorraren izenean, Akitaniako edo departamenduko instantzia batzuetan parte hartu du : Ondarearen eta ederguneen eskualdeko batzordean, Baliozko gauzen departamenduko batzordean, CAUE-ko administrazio kontseiluan.

1.2 Euskal kulturaren heziketa

Hezkuntza artistikoa eta kulturala eskola munduan

Euskal kultur erakundea, Inspekzio Akademikoaren eta DRACaren aldetik baliabide iturri gisa onartua da. Hezkuntza artistikoa eta formakuntza orokorki euskaraz eraman ditzake eskola orenen barnean eta eskola orenez kanpo.

Kultura heziketaren garapenerako departamenduko Planaren barnean (partaideak direla : Errektoragoa, Inspekzio akademikoa, DRACa, Departamenduko gazteria eta kirola zuzendaritza, Kontseilu Orokorra, Akitaniako Kontseilua eta Herriko Etxe zenbait), Euskal kultur erakundea 4 egitasmoren bitartekaria izan da :

Kolegioak :

- **San Mixel Garicoits, Kanbo**
« Biharko etnologoak ». Saila : ondarea. Terexa Lekumberri (EKE) eta ikastetxeko bi irakasleren ardurapean, ikasleek erakusketa bat apailatu dute Kanboko osasun etxeen historia aipatuz ingurumen kulturalaren eta artistikoaren bitartez.
- **Manex Erdozaintzi-Etxart, Larzabale**
« Bertsularitza : hizkuntz kirola ». Saila : irakurketa, idazkera. Artista parte hartzailea : Xumai Murua.

Lizeoa :

- **Bernat Etxepare**, Baiona – « Olerkiz olerki ». Saila : irakurketa, idazkera. Artista parte hartzailea : Auxtin Zamora.
- **Bernat Etxepare**, Baiona – « Bertsularitza ». Saila : irakusketa, idazkera. Artista parte hartzailea : Karlos Aizpurua

Hitzaditza : diktaketa euskaraz

Euskal kultur erakundeak eta AEK elkarteak laugarren « Hitzaditza » diktaketa maiatzaren 16an antolatu dute, Baionako IUTean. Hiru maila proposatuak ziren : 13 eta 16 urte arteko gazteak, euskara ikasten duten helduak eta euskara ongi dakitenak.

Diktaketarentzat baliatuak izan diren hiru testuak Euskal Herriko hiru idazle hauek espresuki eginak zituzten :

- Itxaro Borda,
- Jean-Louis Davant
- Peio Jorajuria.

Irakurleak ziren : Kattalin Sallaberry, Marie-Agnès Gorostiague et Antton Harignordoki.

Sari ederrak eskuratu dituzte irabazleek.

Musika eta kantu tailerak

Iparralai elkarteak

Dantza eta kantu tailerak Donibane-Garazin Baxenabarreko 17 herrietako 50 bat haurrentzat (6 et 11 urte artekoak). Erakaskuntza euskaraz.

Erakaslea : Denise Olhagaray.

Mugazgairdiko harremanak bultzatu kantaldi eta ikusgarri batzu hegoaldeko elkarteekin antolatuz.

Arte plastikoak

Zirrimarra elkarteak

Arte tailerrak haurrentzat (euskaraz eta frantsesez) Garazi – Baigorriko 30 haurrentzat. Obren erakusketa : Donibane Garaziko Herriko Etxean, ekainaren 20etik 28ra.

Kultur animazioak Xiberuan

Ikas pedagogia zerbitzua elkarteak

Lau animazio Zuberoko hiru sareetako euskal ikasleendako :

- Korrika ttipi,
- Xiru festibalean parte hartzea,
- Hebertik elkarteko kideekin trukaketak ; « Har-eman » ikusgarriari buruz,
- Eguberri kari, Sohütako, Barkoxeko, Mauleko, Atharratzeko, Urdiñarbeko eta Idauze, Mendiko 200 bat haur bildu dira Gotaiñen.

2.1/ Sorkuntza artistikoak :

Konpania profesionalen eskutik

✘ **Antzerkia : « Baba, zango horiak »**

Théâtre des Chimères elkarte

« Baba, zango horiak », antzerkiaren euskarazko bertsioarentzat preparakuntzarako laguntza.

7 urtetarik goitikoentzat.

Jokolariak : Lierni Fresnedo, Charlotte Maingé, Catherine Mouriec, Asier Oruesagasti.

Zuzendaritza : Hervé Estebeteguy. Teknika : Aitz Amilibia – Pantxoa Claverie

✘ **Antzerkia : « Diaspora bidaian »**

Théâtre du Versant elkarte

« Diaspora bidaian » antzerki sorkuntza, Bernardo Atxaga, Pier Paul Berzaitz eta Joseba Sarrionandia idazlearen testuetan oinarritua. Taula-zuzendaritza : Gaël Rabas eta Orlando Arocha.

Parte-hartzaileak : Françoise Dorgambide, Elisabeth Moulia, Eztitxu Zaldua, Lilia Etcheverry, Javier Barandiaran, Nesly Georges, Agustin Mulliez. Musika : Pascal Turbet. Dekoradorea : Brigitte Rabas eta Christian Dubois. Margoak : Virginie Salane. Argiak : Jacky Rivoal.

Antzerkiaren aurkezpenak : Azaroaren 20an Baionan, Azaroaren 21ean Barkoxen, Abendoaren 6an Senperen, Abendoaren 11an Bastidan, Abendoaren 12an Uztaritzen eta Abendoaren 13an Donapaleun.

✘ **Antzerkia : « Babiloniako Loreak »**

Luhusoko Harri Xuri gelan

Le petit théâtre de pain elkarte

Lan egonaldiaren lehen parteari laguntza. Sorkuntza landua izan da 2009ko uztailaren 10etik agorrilaren 10era Luhusoko Harri Xuria gelan.

Ikusgarria Jon Gerediagaren testutik abiatu, Ander Lipusen taula zuzendaritzapean eta Fabrica de Teatro Imaginario konpainiarekin egin izanen da. Artedramak ekoiztuta.

Sorkuntza taldea : Ander Lipus, Espe López, Miren Gaztañaga, Mirian K. Martxante, Alex Gerediaga (akotreak) - Xabi Erkizia (musika) - Oier Ituarte (argitazpen diseinua) - Miren Lore Garmendia (jantzien diseinua eta errealizazioa) - Ainhoa Resano (argazkiak) - Jose Pablo Arriaga (eskenografia) - Cinthia Ioli (makijasa) - Ainhoa Resano (diseinu grafikoa) - Ainara Gurrutxaga & Urko Redondo Dejabukoak (zuzendari laguntzaileak).

✘ **« Gau eraginak » antzerkia**

Théâtre du rivage elkarte

« Gau eraginak » euskarazko komedia toki hauetan aurkeztua izana da : Biriatur urriaren 16an, Azkainen urriaren 23an, Senperen azaroaren 6an, Donibane Lohizunen azaroaren 20an, Urruñan azaroaren 27an, Getarian abendoaren 4ean, Arbonan abendoaren 11an eta Ainhoan abendoaren 18an.

Partehartzaileak : Maria Alonso del Val eta Xabi San Sebastian.

Taula zuzendaritza eta koregrafia : Pascale Danièle Lacombe,

Teknika : Amaia Irigoyen.

✘ **« Kokolobatxi » antzerkia**

Tokia théâtre elkarte

Gaztetxoentzat euskarazko sorkuntza prestaketarentzat laguntza.

Antzerkilariak : Damien Calmont, Michel Foucher. Kantua : Pantxix Bidart.

Jauntziak : Sylvaine Mouchère.

2010.ko urtean aurkeztua izanen da.

✘ **« Otto » ikusgarriaren sorkuntza**

Elirale konpainia elkarte

Artistak : Jose Cazaubon, dantzaria - Joxelu Berasategi, antzerkilaria - Joseba Irazoki, musikaria.

Taularatzea : Pantxika Telleria - akzesorio sortzailea : Annie Onchalo - jauntzi sortzailea : Karine Prins, argi-sortzailea : Javi Ulla - testo ber-idazketa : Amaia Hennebutte-Millard,

Euskal dantza aholkularia : Ion Maya.

✘ **“Olentzero” sorkuntza**

Herri soinu elkarte

« Olentzero badator »

Euskal kultur erakundeak proposaturik, "Olentzero badator", mitologian oinarritu kale-ikusgarri garaikidea sortu du Beñat Amorenak eta Baionan kaleratu 2009ko abenduaren 20an. Parte hartzaileak : Burrunka (15 perkusionista eta 9 gaitero), eta dantzariak, Mizel Théret koreografoaren inguruan.

✘ **« Alpbarock Euskal Herrian » musika sorkuntza**

ZTK elkarte

« Orgue en Baigorri » elkartearen harmargarren urtekari, musika kontzertua Baigorriko elizan, irailaren 27an, suiziar eta euskal musikariekin. Parte-hartzaileak : Alpbarock taldea : Yves Rechsteiner (organoa), Nikita Pfister (Hackbrett, tinpanon), Nicolas Sansarlat (arrabita), Guillaume Olry (kantua). Euskal Herriko artistak : Maddi Oihenart (kantua), Thierry Biscary (kantua eta perkusioak), Karlos Subijana (alboka, txirula), Paxkal Indo (txirula, txalaparta).

✘ **Dantza**

“Aurrez aurre”

Maritzuli konpainia

Koregrafoak : Claude Iruretagoyena, Christine Grimaldi, Jon Iruretagoyena.

Berrogeitahamar bat dantzari : Maritzuli (Biarritz) eta Meatzaldeko Arrigorria dantza taldea (Bizkaia).

Argiak : Roger Hirigoyen.

Lehen emanaldia : martxoaren 24ean, Donibane Lohizunen.

✘ **Dantza : Arpean – artista egonaldia**

Atelier elkarte

Iker Gómez Eibarko koregrafoaren artista egonaldia Biarritzen ekainaren 29tik uztailaren 10era, irailaren 9tik 27ra iragan dena « Dantza hirian » festibalakari.

✘ **« Hil harritik harri bizira » egonaldi performantza Larzabaleko Harri borobil zentroaren kari maiatzaren 10etik 15era**

Partaideak : Larzabaleko herriko etxea – Manex Erdozaintzi kolegioa – Larzabaleko ikastola

Euskal kultur erakundeak proposaturik, Oreka TXeko Igor Otxoa eta Harkaitz Martinez txalapartariak onartu dute sorkuntza bat egitea Harri borobilaren zentroari eta harriaren tematikari lotuta. Euskal Herrian diren harriaren erabiletatik abiatuz, Igor Otxoak erakutsi nahi izan du harri bat nola « bizi arazten » ahal den.

Igor eta Harkaitzek herriko eskolako, ikastokako eta kolegioko ikasleeri harrizko txalaparta jotzen erakutsi die eta sorkuntza proiektuan parte hartzeko aipatu tailer batzuen bitartez. Bestalde, Claude Labat “Lauburu” elkartekoa kolegioko ikasleeri bere diaporama « La chair des pierres » aurkeztu die euskal eta pirineotako ipuinak eta mitoak harriarekin lotutakoak uztartuz.

Sorkuntza performantza herrian lantzeko, Igor eta Harkaitzek ondoko artistak eta kirolariak gomiatu dituzte : Piarres Erdozaintzi Larzabaleko zizelkaria, Bizkaiako Janire Pandero eta Iker harri zulatzaileak, Oreka TXeko txalapartariak, Kukai dantza taldeko Vanesa eta Nerea, Maialen Errotabehera kantaria.

Emanaldiak kolegioko aterpean aurkeztuak izan dira, ikasleek egin obrek mugatzen zutelarik joko-eramua. Lehen emanaldia 200 ikasleeri eskainia izan zaie eta bigarrena arratsean publikoari (180 ikusle). Erakasleen inplikazioari esker proiektu hori posible izan da. Azkenean, topaketa oso aberatsak gertatu dira denentzat, artista, irakasle, ikasle eta publikoarentzat.

✘ **Har-eman sorkuntza**

Hebentik elkarte

« **Har eman** » ikusgarriaren sorkuntza : musika, dantza eta pailasoa.

Denentzat, 7 urtetik goiti.

Parte-hartzaileak : Jean-Christian Irigoyen (musikaria), Matthieu Mendizabal (dantzari garaikidea), Pierre Vissler (pailasoa).

Ikusgarria bost zatitan da. Testuak : Auxtin Zamora, Mixel Xalbador eta Gabriel Arrestirenak.

Estrenaldia : Senperen (Ibarrun) martxoaren 22an, 17:00tan Inharria Gelan.

✘ « **Ezkie haizean kantari** » sorkuntza

Compagnie des Syrtes elkarte

Itxaro Borda-ren testu poetiko batean oinarritua.

Corinne Lallemand, Beñat Achiary, Jesus Aured, Jean Philippe Leremboire, Goiko eta Guanes Etchegaray artistekin.

Pierre Esteve musikariaren instalazio soinuduna.

Paxkal Indo-ren irudi eta proiektzioak (Aldudarrak Bideo).

Aurkezpena : irailaren 12an eta 13an Isturitzeko eta Otsozelaiko harpeetan.

✘ **Txontxongiloak** : « **Zure txanda, Malu !** »

Au fil du théâtre elkarte

3 urte / 7 urtekoentzat euskarazko sorkuntza.

Txontxongiloen jostea et beste jantzien joste lana : Annie Onchalo, Agnès Cerlo.

Musika sorkuntza : Hélène Doudies Larcade.

Lehen emanaldia : martxoaren 10ean Donapaleun.

Konpania amaturren eskutik :

✘ « **Ilargi** » : dantza

Pottoka dantzan elkarte

« Ilargi » izeneko sorkuntza uztailaren 18an egina izan da Ortzainen.

13 zatiz osaturik, « Ilargi » ikusgarriak pottokaren historia kondantzen du, pottoken dantza eta ohiko dantzaren bitartez.

Asmatzailea : Jean-Michel Aizaguer.

Hamar bat pottoka, hogoi bat dantzari (Donibane-Garazi, Luzaide eta Baigorritik) eta musikariak.

✘ « **Sakratua** » dantza

Leinua konpainia

Elizaren erritoeri buruzko ikusgarriaren prestatze lana.

Asmatzailea : Roger Goyeneche. Koregrafia : Roger Goyeneche eta Bittor Corret.

Makilaria : Alain Saldumbide. Musika zuzendaritza: Patrick Larralde. Jauntziak : Lagun elkarte.

Laguntzaileak : Claude Labat, Beñat Zintzo Garmendia.

Lehen emanaldia 2010eko martxo-apirilean.

✘ « **Andrearen uzta** »

Errobiko kaskarrotak

« Andrearen uzta » dantza eta musika sorkuntza. Gaia : emaztearen lekua Euskal Herriko dantzan. 60 bat dantzari, talde profesional batek inguraturik. Ikusgarria lau zatitan da : mitologia eta XVI.eko dantza, « gizonen dantza », baleten sorkuntza, dantza garaikidea. Musika sorkuntza : Rémy Gachis. Dantza sorkuntzak : Jose Cazaubon, Marie Telletxea eta Pantxika Telleria.

✘ « **Lapurdiko trajedia** »

Lapurdi 1609 elkarte

« Lapurdiko trajedia » antzerkiaren prestaketa, Senperen aurkeztua izanen dena 2010ean.

Idazleak : Peio Chipi, Joseba Aurkerenarena eta Mixel Jorajuria.

Jokolarien zuzendaritza : Manex Fuchs.

✘ « **Ostatu batuak** » antzerkia

Antzeraki elkarte

« Ostatu batuak », Eneritz Zabalektak idatzi euskal antzerkiaren prestaketa. Jokolariak : Iban Ithurbide, Andoni Jorajuria, Mikel Amilibia, Antton Amestoy, Orzi Hegoas, Lorentxa Iturralde. Jokolarien zuzendaritza : Manex Fuchs

✘ « **Libertimendua Donibane Garazin** »

Garaztarrak elkarte

« Libertimendua » deitu dantza-antzerki ikusgarri baten kanpoan emaita, Donibane Garazin 2009ko otsailaren 22an. Antzerkiaren idazlea : Antton Luku.

✘ « **Libertimendua Donapaleun** »

Kitzikazan/k elkarte

« Libertimendua » deitu dantza-antzerki ikusgarri bat kanpoan eman da, Donapaleun 2009ko martxoaren 1ean : Kabalkada (Burgaintzi eta Iruskiko dantzariak, zirtzilak, bertsulariak) eta « Paisol dantza » emanaldia. Antzerkiaren idazlea : Mattin Irigoyen.

2.2/ Sorkuntza : euskal kultura irratietan

✘ **Irratietako euskal emankizunak**

Euskal irratia

« Jalgi hadi » emankizunaren sorkuntza eta hedapena lau irratietan : « Gure irratia », « Irulegiko irratia », « Xiberoko botza » eta « Antxeta irratia ». Euskal kultur erakundearen harat-hunaten berri, irratietan zabaltzea.

3.1/ Euskal artisten hedapena bizkorki sostengatu

Euskal artisten hedapena

Kalitateko euskal kultura adierazpena iraunkorki sustatzeko, beharrezkoa da beraz sareak azkartzea eta biderkatzea elkarte eta erakunde partaide desberdinekin. Bestalde, harreman bereziak asmatu behar dira Frantzia eta Europa mailan sail hortan berezituak diren hedapen egituretan oinarrituz.

Ekintza konkretu batzuen bidez emaitzak ekarriko dituen epe luzerako dela ikusirik, euskal kulturaren hedapena lehenik tokian berean eta Akitanian azkartu behar da, diren baliabide zentroyen bitartez (OARA, adibidez) eta ondotik Frantzian eta Europan, ikusketa lan handi bati esker.

Gainera, mugazgaineko harremanak jarraitu eta azkartu behar dira egiazko trukaketa artistiko eta kultural politika izan dadin, udalen kultura zerbitzu eta euskal kulturaren aldeko elkarteekilako partaidetza batean oinarritua.

Fredi Paya eta argentinako « payador » bat bertsutan « Argentinako euskaldunak » erakusketaren estrenaldia Les Translatines festibalaren kari (Argentinari buruz).

Partaideak : Les Translatines – Atalante zinea

Euskal kultur erakundearen eta Translatines festibalaren parte hartzeari esker, Kepa Etchandy argazkilari baionesak "Argentinako euskal diaspora"-ri buruzko kolorezko argazki erakusketa bat aurkeztu digu. Estrenaldia urriaren 16an izan da publiko zabal batekin Atalante-ko zinegelan. Kepa Etchandy-k argazki batzuen azalpen interesgarriak eskaini ditu, irudieri beste dimentsio bat emanez.

Ondotik, « Kulturarteko bertso bira » dokumentalaren zatiak erakutsiak izan dira.

Maialen Lujanbio, Xabi eta Fredi Paya bertsularien Hego Amerikaren itzulia ikusten da baita ere egin dituzten topaketak Brasil, Argentina eta Uruguay herrietako improbisatzaileekin.

Gero, zuzenean, Fredi Paya bertsulariak eta Wilson Saliwoncky argentinari payadoreak emanaldi zoragarria eskaini die publikoari.

Vasconiako topaketak Hazparnen urriaren 17an

Partaideak : Pirineo-Atlantikoetako Kontseilu orokorra – Collectif ça- EKE

Euskal eta gaskoin kulturen arteko topaketaren inguruko sorkuntza berezia, adierazpen artistiko frangotan oinarritua.

Artistak: Koldo Amestoy eta Serge Mauhourat, kondalariak, Laetitia Amilibia akrobata, Coline Hateau, plastikaria, Julie Läderach, bibolin joilea, Pantxix Bidart, kantaria, Didier Ithurssarry akordeoia, Kristof Hiriart, kantaria eta perkusioak, Maddi Oihenart kantaria, Arana Orkestra eta Xarnege taldea

Pirineo-Atlantikoetako Kontseilu orokorrak antolatu "Udazken festibala"-ren barnean Collectif ça-i eta EKeri sorkuntza bat eskaturik. Lagunarte konpainia eta Xarnege taldea gomituak izan dira eta gero elkartuak emanaldiaren sortzeko.

Euskal kultur erakundeak lagundu edo/eta programatu dituen euskal artistak :

Artistak	Tokiak
Igor Otxoa - Harkaitz Martinez (Oreka Tx)	Résidence d'artistes à Larceveau
Piarres Erdozaintzi	Résidence d'artistes à Larceveau
Janire Pandelo	Résidence d'artistes à Larceveau
Iker	Résidence d'artistes à Larceveau
Kukai	Résidence d'artistes à Larceveau
Maialen ERROTABEHHERE	Résidence d'artistes à Larceveau
	Concert au musée basque de Bayonne
	Festival Occitania - Le Garric (Exposition Euskal munduak)
Philippe Albor	Concert à la médiathèque de Biarritz
Xabaltx	Tournée en Argentine
Koldo Amestoy - Pantxix Bidart	Musée basque de Bayonne
Mikel Dalbret	Œuvres pour la finale de Bertsolari txapelketa
Ixo ! Taldea	Concert au château d'Abbadia à Hendaye
Pantxika Solorzano et Xano Halsouet	Concert au château d'Abbadia à Hendaye
Pier Pol Berzaitz	Concert au château d'Abbadia à Hendaye
	Concert à Sainte-Croix de Bayonne (avec la Scène Nationale)
	Concert à Koldo Mitxelena (Saint-Sébastien)
Kantiruki taldea	Concert au château d'Abbadia à Hendaye
Jean-Michel Bedaxagar	Conférence à la médiathèque de Biarritz
Aurelia Arkotxa et Jesus Aured	Poésie et musique à la médiathèque de Biarritz
Cie de théâtre Tartean (Pays basque sud)	Salle AIEC de Cambo-les-Bains
Patrice Dumora	Concert à Koldo Mitxelena / Saint-Sébastien
Otxalde taldea	Concert à Koldo Mitxelena / Saint-Sébastien
	Concert à Bidart et à Andoain
Maiana Agorrody	Projection audiovisuelle à Andoain
Panpi Olaizola	Projection audiovisuelle à Andoain
Watson	Concert à Bordeaux (OARA)
Arribit trio	Concert à Bordeaux (OARA)
Jesus Aured - Itxaro Borda	Salon du livre à Paris
Maddi Oihenart et Julie Läderach	Festival Occitania - Le Garric (Exposition Euskal munduak)
	Concerts en Géorgie
Groupe Christian Borda	Festival Occitania - Le Garric (Exposition Euskal munduak)
Beñat Achiary	Festival Occitania - Le Garric (Exposition Euskal munduak)
Sukila (géants de Cambo-les-Bains)	Festival Occitania - Le Garric (Exposition Euskal munduak)
Andde Duhalde	Soirée littéraire "Etxea" à Saint-Jean-de-Luz
Marko Ampsach	Animation dessins
Wilson Saliwonczik et Paia	Accueil de l'argentin / Improvisations à Bayonne
Beñat Amorena	Création spectacle Olentzero à Bayonne
Patxi ta konpania	Concert à Euskal etxea de Barcelone
Maddi Oihenart	Concert à Euskal etxea de Barcelone
Amaia Rirouspeyrous	Concert à Euskal etxea de Paris
	Concert à la médiathèque de Biarritz
Kattalin Indaburu	Concert à la médiathèque de Biarritz
Bostgehio	Concert à Euskal etxea de Paris
Amaren alabak	Concert à Euskal etxea de Paris et documentaire "Iparralde XXI"
Ezpeleta txaranga	Concert au Parc Aventure basque du Québec (Canada)
Zpeizmukaki	Californie - Amérique
Karlos Aizpurua	Improvisation versifiée au lycée Etxepare (Bayonne)
Auxtin Zamora	Intervention au lycée Etxepare (Bayonne)
Nicole Lougarot	Médiathèque de Biarritz
Jean-Baptiste Dirassar	Médiathèque de Biarritz
Mikel Duvert	Médiathèque de Biarritz
Sylvie Licard	Médiathèque de Biarritz
Claude Labat	Bidart
Groupe Pii Pil	Foire de Durango
Marikita Tambourin	Foire de Durango
Christelle Bidegainberry	Soirée basque à Bordeaux (OARA)
Julie Mary	Soirée basque à Bordeaux (OARA)
Maialen Narbaitz	Semaine culturelle à Saint-Jean-de-Luz
Maite Lafourcade	Semaine culturelle à Saint-Jean-de-Luz
Duo Palenka	Hendaye
Oskarbi	Hendaye
Yves Sallaberry "Xala"	Documentaire-vidéo "Iparralde XXI"
Amest Arzallus	Documentaire-vidéo "Iparralde XXI"
Maiana Irigoyen	Documentaire-vidéo "Iparralde XXI"
MAK	Documentaire-vidéo "Iparralde XXI"
Xumai Murua	Ecole de bertsu
Jean-Louis Davant	Hitzaditza
Peio Jorajuria	Hitzaditza
Itxaro Borda	Hitzaditza

3.2/ Euskal Herri barnekaldeko kultura egituren egitasmoak lagundu

■ BAXENABARREKO HERRI ANTZOKIA

Garazikus elkarte

Euskal kultur programazioa urte guzian (artista egonaldiak, sorkuntza, hedapena, mota askotako animazioak

« Hila espos » antzerkiaren hedapena, urtarrilaren 11an, Garaziko Vauban zinema gelan ; Elaudi taldearen kontzertua, otsailaren 1ean ; « Herriko botzak » Piarres Larzabalen antzerkia, maiatzaren 3an ; « Bodarin » agerraldia, Anaigazteak konpainiak aurkezturik, agorrilaren 13an, Jai alai tokian ; « T Danz » festibala, urriaren 2tik 4erat talde hauekin : Kukai (Hnuy Illa), Ebats Lauetan, Lagunekin (Gauzak Biltzen)... ; « Bi » izeneko ikusgarria, Gabadin, azaroaren 14ean, Kilikolo Zirko taldeak emanik ; Maritzuli konpainiak « Aurrez Aurre » ikusgarria, azaroaren 15ean, Irisarrin ; Joselu Berasategi eta Jose Cazaubon artisten egonaldia, Baigorriin, azaroaren 19an eta 20ean « Otto » emanaldiaren sorkuntzari buruz.

■ XIBEROKO ESKUALDEA

Hebentik elkarte

« **Har eman** » euskarazko emanaldiaren hedapena apirilaren 28an eta 30an Donibane Garazin, ekainaren 30ean Larraiñeko trinketean, uztailaren 21ean Lesakan, azaroaren 13an Azpeitian eta abendoaren 12an Maulen.

« **Gernika** » euskarazko emanaldiaren hedapena : Urtarrilaren 23an Kanbon, otsailaren 13an Maulen, apirilaren 18an Gernikan, azaroaren 27an eta 28an Donostian.

Artistak : Pierre Vissler, Ane Zabala, Ramon Albistur, Bruno Barès.

« **Hebentik harat** » kultur topaketak herri desberdinetan eta gai hauen inguruan : musika, dantza, antzerkia, pailasoa, bertsularitza, suak, filmak...

- Uztailaren 4ean Larraiñen : Oiherko txaranga, Larraiñeko dantzariak eta filma, Tipul ta Putilekin antzerkia.
- Uztailaren 16an Baztango Arizkunen : Amaren alabak taldea, bertsulariak, Oiherkoren txaranga eta dantzariak,
- Uztailaren 17an Aezkoako Hiriberrin : Lucien Joa eta Nadine Elgoyhen, xiberotar musikariak,
- Uztailaren 18an Alduden : ibilbide artistikoa, pilota partida pailaso pilotariekin, filma eta suak,
- Uztailaren 21ean Lesakan : xiberotar dantzariak, Amaren alabak eta Har eman,
- Uztailaren 22an Saran : pilota partida pailaso pilotariekin, Elodie Baffalio pianista, suak,

■ HAIZE BERRI KULTUR ETXEA

20. uda erakusketa Izuran :

Haize berri kultur etxeko erakusketa nagusian, Christiane GIRAUD eskultorearenak eta Jean pierre AUBERT margolariarenak.

Elizan Xabier EGANARENak.

Ametzanea ostatuan Philippe FRANTZEN margolariaren abstrakzioak.

Han-hemenka Izura herrian, Agnes BRIVES, PATRICYAN, Zoe BRAY, Josette DACOSTA-BRAY, Ines GERREKA eta Amaia ZINKUNEGIren apailaketak plastikoak.

« **Ibañeta** » euskarazko antzerkiaren hedapena

Hendaian (martxoaren 27an), Biarritzen Korrika kulturalakari (martxoaren 22an), Gipuzkoako Seguran (apirilaren 4ean) eta Bizkaiko Aulestin (apirilaren 18an).

■ EIHARTZEA ELKARTEA

Euskal kulturaren hedapena Hazparnen eta ondoko herrietan

- Urtarrilaren 31an : Beñat Achiary-ren kontzertua Aiherran (« Baten bila » kari),
- Martxoaren 16, 17 eta 20an : « Zure txanda, Malu ! » ikusgarriaren hedapena Hazparnen eta Donamartirin,
- Maiatzaren 23an Hazparnen : TransDanz festibala,
- Uztailaren 18an : Kilikolo Zirko elkartearen « Bi » emanaldia.

■ ISTURITZE

Espace culturel Isturitz oxocelhaya elkarte

« **Poetikoak** »

- Martxoaren 14ean : « Gogoan nola, harpean hala... » emanaldia. Bertsolariak beste artista batzuekin elkarrizketan : inprobisazio poetikoak, musika, dantza eta adierazpen grafikoari erantzuten.
- Andoni Egaña eta Uxue Alberdi bertsolariak, bai eta Christophe Hiriart, Mathieu Mendizabal, Gonzalo Etxebarria, Paxkal Indo...
- Apirilaren 4ean : Poesia errezitala : Miren Aranburu (ahotsa), Jean-louis Hargous (saxofoia) eta Chris Martineau (altoa eta ahotsa).
- Ekainaren 6an eta 7an : Idazketa lana (euskaraz eta frantsesez).
- Laguntzaileak : Itziar Madina, Jean-Philippe Leremboure eta Corinne Lallemand.

■ HELETA

Traboules elkarte

- Euskal artistak Heletako Itsasoan : Itxaro Borda, Jesus Aured, Mixel Etxekopar et Pierre Vissler, Arrabit trio, Mixel Ducau.
- Kepa Junketa trikitilaria eta Itxaro Borda olerkilariarekin gaualdi bat Heletako « Itsasoa » gelan, azaroaren 20an.

3.3/ Proposamen iturria kostaldeko hirientzat

Duela dela urte zenbait hasirik, Euskal kultur erakundeak proposamenak egiten dizkie kostaldeko hiriei euskal kulturaren ezagutarazteko eta beren programazioetan sartzeko, hala nola kultur asteak, kontzertuak, hitzaldiak antolatuz.

↳ **Baiona : Euskal kultura hirian eta « Olentzero » besta**

Hiruki elkarte

Euskal kultura hirian eta Olentzero-ren besta Baionan :

- Gutun lehiaketa, Olentzerori zuzenduak. Sarien banaketa, abendoaren 12an iragan da Baionako euskal museoan.
- « Olentzero eguna » Baionako karriketan abenduaren 19an, Batukada AB Bum, Orai bat, Jo txistua eta Erro bat txistulari bandekin bai eta ere kantariekin.

↳ **Donibane Lohizune :**

« Euskal kultura argitan / Culture basque à l’affiche »

Martxoaren 16tik eta apirilaren 5era, Donibane Lohizune herriko kultura zerbitzuak eta Euskal kultur erakundeak, mintaldiak antolatu dituzte « etxearen inguruan », besteak beste Maialen Narbaitz Jaureguy eta Maite Lafourcade-ekin.

Dominique Duplantier margolariaren eta Marina Gautier-Dubédat idazlearen « Euskal Herriko ohizko arkitektura » erakusketa Ducontentia aretoan aurkeztua izan da martxoaren 9tik apirilaren 4a arte.

Martxoaren 21an, larunbarekin, Claude eta Jon Iruretagoienaren « Aurrez Aurre » dantza ikuskizunaren lehen emanaldia Maritzuli eta Meatzalde konpainiekin.

Martxoaren 25ean , asteazkenarekin, « Etxea eta etxeok euskal literaturan. Textuen bilketa : Daniel Landart. Irakurketa : Maite Delia, Graxi Solorzano eta Pantxoa Etchegoin. Bertsoak kantatu ditu Anje Duhalde-k.

↳ **Hendaia, Abbadia jauregian :**

Cycle « Kaperan, a kapela »

Euskal kultur erakundeak proposaturik, Hendaia herriaren eta Zientzien Akademiako Antoine d’Abbadie Fundazioaren arteko partaidetzak segitu du, aldaketa batekin : orain arte igandean iragaiten ziren ekitaldiak, larunbat arratsaldera pasa dira.

- Apirilaren 18a, larunbata : IXO ! taldea (Miren Duhart – Cédric Destribats – Jean Michel Etchegaray – Xabi Caset.)
- Maiatzaren 23a, larunbata : Lehen partea : Pantxika Solorzano eta Xano Halsouet. Bigarren partea : Palenka bikotea.
- Irailaren 12a, larunbata : Pier-Paul Berzaitz eta Carlos Gimenez
- Urriaren 10a, larunbata : Aita Xabier Iratzeder zenari omenaldia, olerkiari eta kantikari idazlea, Baigorriko neska talde batekin, eta ere Xalbat Berterreche, Mikel Erramouspe eta Oskarbi taldearekin.

↳ **Biarritz : Animazio kulturalak Mediatekan**

Biarritzeko Mediatekak eta Euskal kultur erakundeak euskal kulturaren inguruan hainbat ekitaldi proposatu dituzte.

- Urtarrilaren 11a, larunbata :
« Amaia Riouspeyrous eta Kattalin Indaburuk euskal poetak kantatzen dituzte »
- Otsailaren 28a, larunbata :
« Buhamiak eta Maskaradak » Nicole Lougarot-ren eskutik
- Martxoaren 21a, larunbata :
« Ikuska » filma dokumentarioaren emanaldia, « Bi harriz lau xori » festibala kari (Biarritz Culture ek antolaturik)
- Apirilaren 25a, larunbata :
Mintzaldia : « Euskal Herrian iragan diren aldaketa nagusiak » Jean-Baptiste Dirrassar en lekukotasunarekin.
- Ekainaren 20a, larunbata :
Mintzaldia bi zatitan : « udako solstizioaren inguruan » Claude Gaignebet eta Jean Michel Bedaxagar-en eskutik
- Ekainaren 30etik abuztuaren 8ra : « Euskal Herriko baserriak etxeak ». Hogeita hamar argazki handiz osatutako erakusketa, Eusko Jaurlaritzak EKE-ri eskainitakoa.
- Uztailaren 4a, larunbata :
Mintzaldia : « Euskal etxea »ren historia eta bere ezaugarriak, Mikel Duvert-en eskutik
- Uztailaren 9a, osteguna :
Mintzaldia Maite Lafourcade-ekin : « Etxea, euskal gizartearen oinarria »
- Uztailaren 23a, osteguna :
Sylvie Licard-ekin « Euskal altzarien istoria »
- Urriaren 31a, larunbata : « Bidaia kosmografikoa » Aurelia Arkotxa poetarekin eta Jesus Aured akordeiolariarekin.

↳ **Biarritz : « Bi harriz lau xori »**

Biarritz culture elkarte

Euskal eta kanpoko adierazpenen astea – Martxoaren 18tik 22ra.

Euskal sorkuntza desberdinak.

Martxoaren 18an : « Aneta Bokaleko » Koldo Amestoy eta Pantxix Bidart-ekin, martxoaren 19an : « Dorrea » Mizel Théret-ren ikusgarria (dantza garaikidea), martxoaren 20an : Nomadak TX-ren kontzertua, martxoaren 21an: « Bihar jaio nintzen » Entza konpainiaren ikusgarria - « Ikuska » bideo dokumentalak - « Dong » Lagunarte konpainiaren ikusgarria, martxoaren 22an : « Ibañeta », Piarres Larzabal-ren antzerkia.

↳ **Bidarte : « Euskal kultur bide arteak »**

Hirugarren edizioarentzat Bidarteko herriak eta EKE-k 3 egunera zabaldu dute festibala, animazioak emendatuz.

Martxoaren 23tik apirilaren 3ra : 2 borna interaktiboak « Kantuketan » eta « Euskal Herriko aurpegiak »

- Apirilaren 27an, ostirala : euskal joko tradizionalak Ikaspilota elkarteak eskoletako hurrei proposaturik, Claude Labat-en mintzaldia Lapurdiko sorginkeriaren auziei buruz eta « Nomadak TX » filmaren emanaldia.
- Martxoaren 28an, larunbata : kantuak, pilota eta « Otxalde folk taldea » -ren kontzertua
- Martxoaren 29an, igandea : Korrika-ren pasaia eta Uhabiako ikastola elkarteak antolatutako Mus txapelketa.

3.4/ Mugazgaineko harremanak indartu

Eusko Jaurlaritzako kultura sailaren eta Euskal kultur erakundearen arteko urteaskotarako hitzarmenaren barnean

Eusko Jaurlaritzak bere Kultura Departamenduaren bidez sostengatzen ditu mugazgaineko kultura trukaketak. Ekitaldi hauei gehitu behar dira « Batekmila : Euskal munduak » erakusketa egon den hirietan antolatuak izan direnak.

Donostia - Koldo-Mitxelena kulturunean

"Iparraldea bertan" zikloa

- Martxoaren 5ean : Kontzertua : Patrice Dumora, Nat Cazarré eta Zedrik Ilhardoy ;
- Martxoaren 12an : Jean-Baptiste Dirassar kazetariaren lekukotasuna, Pantxoa Etchegoin EKEko zuzendariak galdezkatuak ;
- Martxoaren 18an : kontzertua « Otxaldea folk taldea »
- Martxoaren 26an : Pier-Paul Berzaitz eta bere lau musikarien kontzertua.

Gernika

« Iparraldea hurbilagoa »

- Martxoaren 26an : « Aneta Bokaleko », Koldo Amestoy eta Pantxix Bidart-en ipuinaldia ;
- Martxoaren 29an : Théâtre du Rivage elkartearen txontxongilo emanaldia.

Andoain

"Iparraldea Andoainen"

- ⊙ Urriaren 1ean : Panpi Olaizola iparraldeko mendiez mintzo
- ⊙ Urriaren 3an : Otxalde folk taldearen kontzertua
- ⊙ Urriaren 8an : Maiana Agorrody Aka Lady My : laburmetraiak
- ⊙ Urriaren 10ean : autobusez pidaia, Sarako lezeak eta Hendaiako Abbadia jauregia bisitatzeko.

Bigarren Antzerki azoka Azpeitian

Partaideak : Azpeitiko Udala - Eusko Jaurlaritza - Euskal Kultur Erakundea.

Azpeitiako XXVII. Euskal Antzerki Topaketen kariatara, Gipuzkoako herriak II. Azoka Eguna antolatu du azaroaren 13an.

Antzerkia jendartean zabaltzeko helburuari begira, programatzaileek eta antzerki konpainiek elkar hobeki ezagutzeko, mintzatzeko, gogoetatzeko, eta egungo antzerki eskaintzak eta aukerak zertan diren jakiteko, topagune bat sortu nahi izan dute antolatzaileek.

Egun hortan, programatzaileak, Hegoaldetik eta Iparraldetik jinak, elkar topatu dira eta ondoko ekitaldietara gomiatuak izan dira :

- Mixel Etxekopar eta Pierre Vissler-en « Lur azaleko hitzak » ikusgarriarekin,
- Mahai inguruak : Eusko Jaurlaritzako Euskal Behatokiak antzerkiaren azalpenak Txomin Héguay eta Eneko Olasagastiren lekukotasunak lagundurik.
- Hebentik elkartearen « Har eman » ikusgarria,
- Ez dok hiru bikotearen « Euskarazetamol » emanaldia
- FTI-ren « Babiloniako loreak » emanaldia

Ondorio frango atera da eta bereziki bat bestearen lan baldintzen ez ezagutzea. Hobeki gurutzatzek obideak asmatzekoak dira oraindik.

Durangoko Liburu eta Disko Azoka, abendoaren 4etik 8ra

Partaideak : Euskal kultur erakundea - Gerediaga elkarteak - Plateruena Kafe Antzokia

Ipar Euskal Herriko ekoizpenak aurkeztuak izan dira aurreko urtean ere.

Hirugarren urtez, Ipar Euskal Herriko argitaletxeak eta disketxeak (Maiatz, Gatuzain, Ikas, Euskalzaleen Biltzarra, Halsa, ZTK, Agorila, Laguna Studios) elkarrekin joan dira Durangora eta Iparraldeko gune berezi bat osatu dute Gerediaga elkarteak eta EKE-ren arteko partaidetzari esker. Parte hartzaile kopurua doi doia ttikitu da diskoaren zailtasunak direla eta.

Bakotxaren berritasunak Plateruena Kafe Antzokian (diskoak) eta Azokaren Aurkezpen aretoan (liburuak) aurkeztuak izan dira :

Liburu aurkezpenak

Abenduaren 4ean

Maialen Garat eta Xan Aire - « Seaska : 40 urte euskararen alde » (Elkar)

Abenduaren 5ean

Amaia Hennebutte-Maillard - "Hiru otso" (Ikas)

Mixel Thikoipe - « Jin bezala" (Maiatz)

Mailuix Legorburu - "Ahizpa zoin zira" (Maiatz)

Xabaltx - « Xabaltx » (Maiatz)

Pablo Sastre - "Albaren irudiak" (Maiatz)

Jean Etxepare gaztea - « Iturraldea » (Euskaltzaleen Biltzarra – Egan)

Euskaltzaleen Biltzarra - « Iraupenean etorkizuna » (Euskaltzaleen Biltzarraren – Egan)

Abendoaren 6an

Sandrine Mounier - "Erraldoi xuria"(Gatuzain)

Marie-Hélène Martens - "Abereen oihuak eta zurrumurrak" (Gatuzain)

Abendoaren 7an

Marikita Tambourin - "Iraun" (Maiatz)

Eñaut Etxamendi - "Idazlanak 1 eta 2" (Maiatz)

*Kontzertuak – Plateruena Kafe Antzokian:***Abendoaren 8an**

Jean-Mixel Bedaxagar (Elkar)

PIL PIL taldea (Agorila)

Xabaltx (Agorila)

Amaia Riouspeyrous (Agorila)

Egitarau hori eta parte hartzaileen aurkezpenak 3000 aleko plaketa batean bilduak izan dira. EKE-k plaketa eginarazi du eta Euskal Herrian hedatu. Gainera EKEk indar handi bat egin du Euskal Herriko komunikabideetan agertzeko iragarki espazioak erosiz prentsaren orrialde ikusgarrietan (Gara, Berria, Journal du Pays Basque, Sud-Ouest, La Semaine du Pays Basque).

Beraz, Iparraldeko argitaletxeek beren lekua egina dute Azokan orain hobeki agertzen baitira. Bestalde, Kafe antzokian emanak izan diren disko aurkezpenek joanden urtean baino publiko askoz zabalagoa hunkitua dute. Aldiz, liburuen aurkezpenek zailtasun dituzte jendea biltzeko Azokako areto hortan (salbu Eñaut Etxamendi). Heldu den azokarako, aurtengo parte hartzaile guztiak prest daude esperientzia segitzeko eta hobetzeko.

EKE-k ekintza hori bultzatu, koordinatu, antolatu eta lagundu du.

3.5/ Ikusgarrigintzaren hedapena sustatzea **Antzerkia – dantza - musika**

➤ Euskal antzerkia

Le petit théâtre de pain elkarte

« Aulki hutsa », « Tartean », « Juglarea, puta eta eroa » euskal antzerkien hedapena :

- « Aulki hutsa » bi aldiz Kanbon aurkeztua ekainaren 9an eta beste batez azaroaren 6an Gazteizen.
- « Tartean » Ezpeletan ekainaren 10ean, eta Azkainen ekainaren 26an,
- « Juglarea, puta eta eroa » ekainaren 11an Zuraiden, ekainaren 27an Itsasun eta azaroaren 7an Larresoron.

➤ Euskal antzerkia

Jostakin elkarte

« Zenbaki eta hizkiak », « Ondarea » eta « Santsanak », euskal antzerkien sorkuntza, Makeako 15 gazteek emanik uztailearen 16an eta azaroaren 22an.

➤ Euskal dantza

Maritzuli konpainia elkarte

« Aurrez aurre » ikusgarria aurkeztua izan da :
Apirilaren 4ean Durangon, apirilaren 18an Gallartan, uztailearen 11an Luhusoko Harri Xuri gelan.

➤ Euskal dantza

Bardozekeo gaztetxea elkarte

« Gauzak biltzen » ikusgarriaren hedapena ekainaren 7an Ezpeletan eta uztailearen 5ean Heletan.

➤ Euskal ohiko dantza

IDB elkarte

« Ebats lauetan » : jantzi erakusketa, ikusgarriak, musikariak : Iparraldean eta hegoaldean ibiltzen den ekitaldi bat : Tolosan (martxoaren 14ean), ekainaren 7an Ezpeletan, irailaren 5ean Beran, urriaren 4ean Donibane-Garazin.

Ikusgarrien hedapena : Dantzari ttiki maiatzaren 8an Donapaleun, « Mutxikoaren egunaren » 30 urteak urriaren 10ean Arrangoitzen ; bai eta ere « Urraska », « Gauzak biltzen », « Naizena ez naiz » eta « Sakratu » ikusgarrien hedapena.

Baliabide iturri edo artxibategi baten sortzea : dantzari buruzko argazki, bideo, disko eta liburuak bilduz eta sailkatuz.

➔ **Euskal ohiko dantza**

Association sportive Lycée Saint-Joseph elkarte

« Euskal dantza lizeoan xede bikoitzarekin : atxikidura soziala eta garapen artistikoa eta kulturala »

Nicole Lougarot-ren mintzaldia 2009ko martxoaren 11an Uztaritzeko San Josep ikastegian. Dantza ikastaldiak asteazkenetan arratsaldeko 17.00tik 19.00ra, Nadine Goyeneche dantzariarekin.

➔ **Bertsularitza**

Bertsularien Lagunak elkarte

- Bertsularitzari buruzko ekitaldien koordinaketa.
- Transmizioa, saioen antolaketa :
 - Hernandorena saria : martxoaren 28an Donibane-Garazin, apirilaren 3an Larresoron, apirilaren 18an Maulen eta apirilaren 25ean Aiherran.
 - 2009ko iparraldeko bertsulari gazteen txapelketa. Haurren mailekoen finala ekainaren 5ean Hazparneko Mendeala gelan. Gazteen mailekoen finala : ekainaren 6an Itsasun.
 - Beste bertsu-saioak eta Euskal Herriko bi kanporaketen antolakuntza : urriaren 17an Uztaritzen eta azaroaren 15ean Hendaian.
- Ikerketa sailaren jarraipena.

➔ **Bertsularitza eta ihauteriak**

Intxaurreta elkarte

Sustrai Colina eta Amets Arzallus bertsulariak Biriaturko ihauteriakari, martxoaren 7an.

➔ **Mintzaldiak**

Lapurdi 1609 elkarte

Bederatzi hitzaldi Lapurdiko gertakizun lazgarrien oroimenez. Hizlariak : Elisabet Zubillaga, Véronique Duche, Maite Lafourcade, Peio Chipi, Beñat Oyharçabal, Xarles Videgain, J.A. Azpiazu, Armelle Le Bras Chopard, Joan Inazio Hartzuaga, Aitzpea Leizaola, Jose Antonio Azpiazu.

Mintzaldiak herri hauetan iragan dira : Baiona, Senpere, Uztaritze, Donibane Lohizune, Azkaine, Urruña, Sara eta Hazparnen, apirilaren 24etik ekainaren 11a arte.

➔ « **Otsail osteguank** » euskarazko mintzaldiak

Zabalik elkarte

Otsailaren 5etik 26ra Donapaleun herrian :

- Otsailaren 5ean : « Arnaut Abadia – 1843-1916 », Kepa Altonaga, biologo erakasle ikerlariarekin.
- Otsailaren 12an : « Laxaldia ». Teoria eta pratika, gorputz gogoak sano ibiltzeko... Hizlaria : Junes Casenave Harigile.
- Otsailaren 19an : « Piarres Larzabalen antzerkigintza », Ixabel Etxeberria erakaslearekin.
- Otsailaren 26an : « Abertzaleak eta euskara ». Hizlaria : Joxe Manuel Odriozola.

➤ **Pilota eguna**

BAP elkarte (*Blagnac Aero pelote*)

Blagnac-eko « Pilota eguna » kultur emanaldian parte hartzea, apirilaren 24ean eta 25ean : pilota eta hunen berezitasunen ezagutza.

➤ **Historioa eta ingurumena**

Hendaiako CPIE littoral basque elkarte

Urte guzian, kultur ekitaldiak publiko zabalari idekia, Euskal Herriko historioaren eta bereziki 1609.eko gertakari lazgarrien ezagutzaren egiteko : erakusketa, irakurketa, gaueko ibilaldi musikalak, Claude Labat-en mintzaldia...

➤ **Musika (txistua)**

Musikari Donibane Lohizun elkarte

Musika-kontzertu bat Donibane Lohizuneko « Théâtre de la nature » tokian ekainaren 28an, « Arin Luzien » taldeko laurogei bat kantari eta ehun bat txistularirekin. Iñaki Urtizverea eta Antonio Zubeldia zuzendari.

➤ **Musika (organoa)**

Les orgues d'Urrugne elkarte

Organo kontzertuak Urruñako elizan : urriaren 10ean : musika-kontzertuak haurrentzat. Urriaren 11an : kontzertua : organoa (Jesùs Martin Moro) eta txistua (Sergio Torices). Urriaren 17an : organo kontzertua (Etienne Rousseau), gaita (Daniel Crouspeyre / Jean-Pierre Dumoulin), txalaparta (Paxkal Indo, Thierry Biscary).

➤ **Musika (M.A.K. taldea « Rencontres Improbables » ekitaldian**

Cie Les lézards qui bougent elkarte

EKE-k proposaturik eta diruztaturik, MAK hip hop taldeak Rencontres Improbables ekitaldiaren azken emanaldia eskaini du 200 bat jende bilduz Baionako Kalostrape ostatuan.

➤ **Azkaineko « Pastore lore » kultur ekitaldia**

Azkaineko turismo bulegoa

- Urriaren 11an : « Pastore lore » ekitaldiaren antolaketa : animazio kulturalak, dantzak Azkaineko Ikasleak taldearekin eta Itsasuko makilariekin, Hazparneko joaldunen desfilea, erakusketak...
- Azaroaren 14ean : Maite Lafourcade irakaslearen hitzaldia "Etxea, euskal gizartean". Ondotik, bertsu saioa Jean-Louis Laka eta Fermin Mihura partaide.

➤ **Kultur ekitaldiak Larresoron**

Ote lore elkarte

Euskal kulturaren hedapena Larresoron, Jondoni bestakari : « Juglarea, puta eta eroa » , Le petit théâtre de pain-en antzerkia azaroaren 7an, Amaia Riouspeyrous-en kantaldia azaroaren 8an, « Bi » Kilikolo zirkoren antzerkia azaroaren 9an.

➤ **Kantu xaharren eguna Senperen**

Oxtikenekoak elkarte

Bi diskoen plazaratzea, " kantu xaharren egunean" grabatuak. Orotara 60 kantu, beren hitzekin.

➤ **Euskal zinea Baionako Atalante gelan**

Partaideak : *Atalante zine gela – Orio Produksioak*

« *Rencontres sur les docks* » ekitaldiaren kari, **Salda Badago** filma erakutsia izan da. Ondotik, topaketa bat izan da **Eriz Zampirain** zuzendariarekin.

Atalante zinegelak eta Euskal kultur erakundeak duten partaidetza laugarren aldiz obratu dute euskal zinearen inguruan.

Salda Badago Euskal rockaren hastapenak (2001)

Dokumentalaren izena Hertzainak taldearen kantu batetik dator. 23 elkarrizketa aurkezten ditu, 1975 eta 1990 urteen artean rocka egin duten musikariek grabatuak : Barricada, Hertzainak, Itoiz, Zarama... Bestalde, garai hartako irudi ikusgarriak erakusten ditu. Alabaina, rockaren ezta Euskal Herriko beste mugimendu batzuekin bat egin zuen : gaztetxeak, irrati libreak eta fanzineak... Diktaturatik atera berri den gazteriaren « miraila » bat da.

➤ **Musika : Euskal gauldia Molière Scène d'Aquitaine aretoan**

Office Artistique de la Région Aquitaine

Partaideak : *Akitaniako Eskualdeko Kontseilua – OARA - EKE*

Urriaren 17an, larunbatarekin, euskal kultura gozatzeko parada ukan dute Bordalen hirugarren aldikoz, Bordaleko OARA erakundeak Euskal kultur erakundeari programazioa antolatzei aukera eman baitio. Horrela, Bordaleko Molière antzokian folk doinuak eta jazz be bop musikak nagusi izan dira Arrabit Trio eta Patrice Dumora euskal taldeekin. Ondotik, Christelle Bidegainberry eta Julie Mary trikitilariek Euskal Herriko mozkinaz osatu apairua alaitu dute.

Ekitaldi horrek arrakasta ederra bildu du aurten ere eta ondoko edizioa jada martxan da.

➤ **Iparraldeko Konpilazioa : bosgarren bilduma**

Lanetik Egina – Les Kroniks du Rock Libre – Atabal Scène de Musiques Actuelles – Direction Départementale de la Jeunesse et des Sports – Euskal kultur erakundea.

Iparraldeko Konpilazioa proiektuak Iparraldeko musika eszenaren ezagutaraztea eta garatzea du helburu diska baten bitartez, estudio profesional batean grabatzeko aukera taldeei eskainiz,

Taldeen promoziorako tresna bat da ere bai: internet gune bat urteroko aleak eta taldeak aurkeztuz, konpilazioak eskainiak eskualdeko programatzaileei bidaltzeko, afitxak eta flyer-ak kontzertuen aipatzeko, komunikazio plano on bat, etab.

Laugarren edizio honetako konpilazioan ondoko taldeak parte hartu dute : Rachel – Xubung – Starfinder – Fuck Norris – Euski – Milsup – Tikilau.
Taldeak zuzenean aritu dira Biarritzeko Atabalen irailaren 19an 300 bat pertsonaren aitzinean. Aurtengo berrikuntza : Binilio gorri eder 33 itzuliko batean grabatua izan da konpilazioa.

3.6/ Festibalak eta topaketak lagundu

© « **Hartzaro** » festibala otsailaren 14etik 21era Uztaritzen

Herri Soinu elkarte

“Vagabontu” tzigano txarangaren presentziarekin.

- Tindu erakusketa “Ihauteriak Euskal Herrian”, otsailaren 14etik 24erat, liburutegian ;
- Otsailaren 13an : gaita ikastaldia eta « Xaramela » abesbatzaren kontzertua ;
- Otsailaren 14ean : tailerrak Oreka zirkorekin ;
- Otsailaren 15ean : musika klasiko eta ohiko kontzertua, Heraitzeko kaperan, Baionako CRR multxoan Agnalys Hager (“hautbois”), Laure Dugene (klarinetak), Marc Desserez (saxofoia) – tresna zaharren aurkezpena : trikitixa, txistu eta gaita Uztaritzeko soinulariekin.
- Otsailaren 18an : Mikel Laboaren omenaldia, Bostgehio eta Jojo Bordagaray taldeekin ;
- Otsailaren 21ean : Dantzak Uztaritzeko karriketan, Kanbo eta Baigorriko ziganteekin, txalaparta sorkuntza “Hiri haut”, “Andrearen uzta” eta “Bodarin” ikusgarriak ;
- Otsailaren 22an : karriketan ibilaldia – ihauteriak.

© « **Xiru 2009** » festibala apirilaren 3tik 5era

Abotia elkarte

20. musika eta sorkuntza jaialdia Xiberoan.

Apirilaren 3an : Xiberoko ikaslendako emanaldia (Ikas elkartearen partaidetzarekin), « Dorrea », Mizel Théret-ren dantza sorkuntza.

Apirilaren 4ean: mintza-leku Gotaiñeko herriko etxean. « Bohémiens » Nicole Lougarot-ren liburuaren aurkezpena. Yves Santamariarekin eztabaida : « Iragana eraiki : nortasun herrikoa, jakitate eskolatua eta orroimen kolektiboa ». « Ütürzabala », Nestor Basterretxea-ren sorkuntza. « Lürra kanta » ikusgarria, Larraiñeko kantariak, Jean-Mixel Bedaxagar eta Mixel Arotce kantariekin.

Apirilaren 5ean : Gonzalo Etxebarriaren margoak, bertsulariak, kontzertua : Bernard Lubat, Oihako txaranga, « Humani »ko musikariak, Iruñeko Jarauta txaranga.

© **“Etiopikoak” festibala**, Baionan, martxoaren 2tik 7ra

Ezkandrai elkarte

Sei egunez, kontzertu eta ekintza poetiko andana bat antolatuak izan dira euskal kantari eta musikari desberdinekin : Maddi Oihenart, Amaia Riouspeyrous, Beñat eta Julen Achiary, Jesus Aured, Philippe De Ezkurra, eta kanpoko beste anitz artistekin...

© **« Errobiko festibala »** uztailaren 16tik 19era Itsasun

Ezkandrai elkarte

Euskarazko animazio desberdinak festibala denboran : Josette Dacosta, Zoë Bray eta Lola Sarratearen erakusketak, « Soka » eta « Dorrea » ikusgarrien hedapena, Euskal Herriko emazte artisten lekukotasunak, Beñat Achiary eta Philippe De Ezkurra-ren kontzertuak, musika Jean-Christian Irigoyenekin.

© **« Euskal Herria zuzenean »** - uztailaren 3, 4 et 5ean Heletan

Euskal Herria Zuzenean elkarte

Animazioak eta kontzertuak : Moskorri, Nomadak TX, Deabruak teilatuetan, Zurbeltz, Mikel Hats, Bostgehio, joaldunak, txaranga, ...

© **« Gaita eguna »** - irailaren 18tik 20era Donibane Lohizunen

Herri soinu elkarte

Irailaren 18an : Donibane-Lohizuneko elizan : « Gaita eta banda » kontzertua : Iparraldeko gaiteroak, Akizeko La Nehe banda eta Donibaneko Kaskarot bandarekin. Irailaren 19an : Karrika kurri Donibane-Lohizuneko karriketan Iparraldeko gaiteroekin. Euskal dantzak Otxagabiko, Korteseko, Tafallako eta Donibane-Lohizuneko taldeekin. Aratsean, gaita kontzertua musikari hauekin : Baigorri, Baiona, Bilbao, Lizarra, Hendaia, Hernani, Mondragon, Iruña, Tolosa eta Uztaritzeko gaiteroak. Irailaren 20an : « Lehengo musika eta musika klasikoa » kontzertua : Iruñeko Miguel de Arrozpide taldea, J.P. Dumoulin (gaita), Jesus Martin Moro (organoa) eta Jean-Marie Latrille (oboa).

© « **Mai en scène** » **festibala**, maiatzaren 28tik 31ra Maulen

Tokia théâtre elkarte

Festibalaren zazpigarren edizioa, hainbat parte-hartzaile, laguntzaile eta artistekin, besteak beste :

« Zure txanda, Malu ! » - Au fil du théâtre konpainiak eskainirik, maiatzaren 28an,
« Txaribari » (Bilboko konpainia) : txontxongillo emanaldia euskaraz, maiatzaren 28an,

« Elaudi » taldearen kontzertua, maiatzaren 31an.

© « **Musikaren egunak** », maiatzaren 15etik 17ra Urdiñarben

Bil xokua elkarte

Maiatzaren 15ean « Bidaieko jendeak » : Istorioa, Musika, Jakilegoak.

« 1802 » Ikusgarria eta Irabarneko soinulari eta dantzariekin.

Maiatzaren 16an, musikal'dia : 25 soinulari, 30 kantari, 15 dantzari : mundu osoko doinu eta soinu.

Maiatzaren 17an : animazioa : Bertsu saioa Xiberoko bertsulariekin, Zpace Mukaki, Ezpela txaranga, Baigorriko gaiteroak, Xiberoko dantzariak, Niko Etxart eta Hapa hapa, Christian Borda taldea....

© « **Euskal antzerki astea** » ekainaren 8tik 12ra Urruñan

Euskal Haziak elkarte

Euskal antzerki astea ekainaren 8tik 12ra Urruñan (zine gelan).

28 eskola, 8 kolegioko ikasleekin.

7 urtetatik 12 urterainoko 450 hurrek antzertu dituzte 25 antzerki.

© « **Dilin dalan** » **festibala Heletan maiatzaren 16tik 17ra**

Pestacles et compagnie elkarte

Haur ttipien bi hizkuntzetako taillerrak.

Bi egunez ikuskizunak, tailerrak, erakusketak, ipuinak, kontzertuak eta dantzak familia guziarentzat.

© Txontxongillo festibala Hendaian azaroaren 20etik 27ra

Akelarre elkarte

Ikusgarriak : « Elen » (Pantha Rei taldea) , « Batuta » (Taun Taun taldea), « Pinotxo » (Bihar arte taldea), « Zure txanda malu ! » (Au fil du théâtre konpainia). Erakusketa : « Txontxongiloak, mundu bat ».

© Eskolarteko zine hamabostaldia

Uda leku elkarte

Irakaskuntzako hiru saretako ikasleentzat :

Euskal filmak : « Franklin » (4 - 6 urte) eta « Malabar printzesa » (7 - 11 urte).

© Haur kantu xapelketa

Euskal kantu xapelketa elkarte

- Baxe-Nafarroko finalerdia : martxoaren 29an Irisarrin,
 - Lapurdiko finalerdia: apirilaren 5ean Luhuson,
 - Xiberoko finalerdia : apirilaren 19an Maulen,
- Finala : ekainaren 14ean, Barakaldon

© Seaskako 40 urteak

Seaska fedearazioa

Seaskaren 40 urteen gualdia Biarritzeko Gare du midi gelan. Bideoa : ikastoleen historia « Iragana ezagutu geroan aitzinatzeko » - chanteurs : Amaren Alabak, Aritzak, Anje Duhalde, Guk, Etxamendi ta Larralde, Haurrock, Erramun Martikorena, Trikitake, Mikel Urdangarin, Antton Valverde – antzerkia : « Mari bi sos » taldea eta Xalbador ikastegiko ikasleekin – bertsulariak : Amets Arzallus eta Miren Artetxe.

© « Sormenaren erezia » erakusketa Uztaritzen

Ur begi elkarte

Irailaren 5ean eta 6an.

Musika kontzertua Andoni Aguirre pianistarekin (irailaren 5ean).

© Euskal kantuak Donapaleun

Euskal kultur elkarte (Aiziritzeko bilgunea)

15 novembre à Aicirits : kantaldi avec les chants de Manex Pagola. Participants : Delphine Urrutiager, Xiberutarrak, Pagolarrak, Laurent Casenave, Arnaud Uhalde, Frantxua Caset, Miren et Maylis Etxart, Gaëlle Larroude, Henri Miremont, Benoît Ondars, Laurane Merle et Amikuze kantuz.

Azaroaren 15ean Aiziritzen – Kantaldia : Manex Pagolaren kantuak. Parte hartzaileak : Delphine Urrutiager, Xiberutarrak, Pagolarrak, Laurent Casenave, Arnaud Uhalde, Frantxua Caset, Miren eta Maylis Etxart, Gaëlle Larroude, Henri Miremont, Benoît Ondars, Laurane Merle eta Amikuze kantuz.

© Euskal kantuak Altzürükün

Goiz argi elkarte

« Gaü itsartsü » kantaldia Altzürükükö elizan, uztailaren 24ean. Marjorie Muray kantari zopranoaren parte hartzearekin baita Kattalin Indaburu.

© « Euskal kantuaz » Mintzaldiak

Pantxoa Etchegoin-ek euskal kantuari buruzko mintzaldiak egin ditu :

- maiatzaren 26an, Kanboko « Les Thermes »-etan,
- uztailaren 22an, Baionako Euskal museoan,
- agorrilaren 20an, Kanboko « Les Thermes »-etan,
- azaroaren 7an, Pariseko Euskal etxean.

3.7 / Literatura eta edizioa

Ipar Euskal Herriko argitaletxeak Pariseko Liburu Azokan

Euskararen erakunde publikoa, Euskal kultur erakundea eta Eskualdeko Kontseilua/Arpel Aquitaine elgarretaratu dira aurten lehen aldikoz Ipar Euskal Herriko argitaletxeek parada ezinago hobea ukan dezaten Pariseko Liburu Azokan parte hartzeko, martxoaren 13-14 eta 15ean.

Karia hortarat, espazio bat eskainia izanen zaie Azoka gunean (Porte de Versailles), eta euskal literatura ekitaldi bat ere antolatua izanen da : Itxaro Borda, Mylène Charrier eta Jesus Aured eskusoinu joilearekin.

« Sarako biltzarrea »

Sarako turismo bulegoa

XXVI. Sarako Idazleen Biltzarra apirilaren 13an. Idazleen ekoizpenen saltzeak eta izenpetzeak. « Herria » kasetari omenaldia, duela 65 urte sortua delakoz eta bere 3000garren alea jalgi baitu.

« Biltzar sari » berezia eskuratu du. Ekitaldi berean, antolatzaileek « ohorezko makila » eskainiz eskertu dute Daniel Landart, euskal kulturaren alde egin duen lan guziarentzat.

« Marrataluma » Uztaritzen

Hondartza elkarte

Ekitaldia Uztaritzeko Kiroleta gunean iragan da martxoaren 21 eta 22an : Idazle, ilustratzaile eta liburutegien elgarretaratzea.

Mintzaldi-eztabaida, margo tailerak, ikusgarri poetikoa.

« Literatur solasaldiak »

Maiatz elkarte

« Maiatz » literatura agerkariaren 48. alearen argitalpena

25garren Literatura solasaldiak egunen antolaketa maiatzaren 13an eta 14ean Baionako Euskal Erakustokian, parte hartzaile hauekin : Peio Jorajuria, Eñaut Etxamendi, Antton Lucu, Mixel Thicoipé

« Hatsaren poesia eta olerki irakurketak »

Hatsa elkarte

- « Hatsaren poesia » olerki liburuaren plazaratzea eta olerki egunaren antolamendua apirilaren 5ean Senperen.

Idazleen olerki irakurketa : Ainara Amaia (« Habiapundua »), Eukene Lizeaga-Tamayo (Mikel Laboari), Oier Guillan eta Idoia Beratarbide (« Bazterreko norabideak »), Juankar Mugartza (« Senperetik Erriberara »), Alvaro Mundiaño-Gartziandia, Andres Garmendia, Auxin Zamora.

- « Maite ditugun olerkiak » sailean, hilabetero olerkari bat gomitatu eta berarekin egun bat ikuskizun poetiko bat antolatu.

Jean Hiriart-Urruty kalonje zenari omenaldia

Euskal kultur erakundeak eta Euskaltzaleen biltzarrak, Hazparneko herria partzuer, omenaldi bat eskaini diote Jean edo Manex Hiriart-Urruty kalonje zenari azaroaren 7an, Hazparneko mediatekan.

Duela 150 urte sortu Hiriart-Urruty kalonjeak merezi zuen aipatua izaitzea, bere denborako idazle hobenetarik izan baitzen eta luzaz « Eskualduna » astekariaren buru egon zen.

Haren biziaz eta haren obraz mintzatu da Janbattitt Dirassar « Herria » astekariaren zuzendaria. Eta karia hortarat, Hiriart-Urruty kalonjearen idazlan zati batzuen irakurleak izan dira : Maite Deliat eta Kattalin Sallaberry.

ICB eta ECLA

« Lettres Aquitaine » aldizkariarentzat, lau textoen idazketa :

- Marikita Tambourin (Maiatz),
- Nicole Lougarot (Gatuzain),
- Ikaren Mundua (Atamatxi),
- BataKlon (Alberdania).

3.8/ Arte plastikoak

▣ Bardozeko gaztetxea

Udako arte erakusketa, ekainaren 20etik uztailaren 5era Bardozen : Croux, Cuquel, Lasserre, Worboys, Jeff&cruz, Monnin, Plantey.

▣ Ezpeleta Begi argi elkarte

Udako erakusketa Ezpeletako gazteluan, uztailaren 25etik agorrilaren 22ra.
Gaia : « Itsasoa ».

▣ Baiona Ur taldea elkarte

« Euskal Herria pausoz pauso » : erakusketak Baionako Kalostrape-n ; Besteak beste ; Alain Sistiaga martxoaren 9tik 29ra eta Josette Dacostaren obrak apirilaren 29tik maiatzaren 24era.

▣ **Donibane-Garazi**
Argian elkarte

XV. argazki erakusketa Donibane-Garazin 2009ko irailaren 5etik 20era.
Erakusketa eta leihaketa (gaia : « ura »).
Sarien emaitza irailaren 21ean Donibane-Garaziko herriko etxean.

▣ **Donibane-Garazi**
Itzal aktiboa elkarte

« Emazteen artea » erakusketa Donibane-Garazin, martxoaren 7tik goiti eta Auritzen apirilaren 8tik goiti. Hona zein izan diren artistak : Amaia Zinkunegi, Ines Gereka, Begoña Durruty, Elena Dufur, Jacqueline Lebrun, Josette Dacosta, Lola Sarratea, Maialen Dissard, Odile Lascaray, Zoe Bray.
Bisita gidatuak izan dira eskolako hurrekin.

▣ **Ziburu**
Itsas begia elkarte

Arrantza teknikari buruzko erakusketa elebiduna : balea eta bakalauaren arrantza.
Itsas ondarearen transmizioa.

▣ **Baiona**
Hatza elkarte

Gaizka Iroz, Bertrand Lapègue, Angela Mejias, Cédric Pasquini, Jaques Pavlovsky eta Daniel Velez-en argazki-erakusketa, Hiriburuko Andereseroraenian, maiatzaren 30etik ekainaren 21era. Gaia : « Berriketari-argazkilari ofizioa ».

4.1/ www.eke.org, euskal kulturaren baliabide iturri numerikoa

2008ko otsaileko Ladousse jaunaren txostenaren arabera, Euskal kultur erakundeak bere web ataria oraino gehiago eguneratu eta aberastu behar zuen, euskal kulturaren ezinbesteko erreferentzia bilakatzeraino.

Euskal kultur erakundearen erakusleho instituzional bat baino gehiago, www.eke.org ataria kalitatezko baliabide-webgune bat litzateke euskal kulturari buruzko argibide orokorrak baina ere zehatzagoak bilatzen dituzten edozein internautentzat.

Xede hori kontutan harturik, 2009an hiru lan ardatz nagusi landu ditugu :

- A – www.eke.org atariaren birmoldaketa grafikoa eta hobekuntza funtzionalak**
- B – Sareko eduki numerikoen sorkuntza eta eguneraketa**
- C – Erreferentziamendua eta atariaren ikuspenaren hobekuntza**

A - www.eke.org atariaren birmoldaketa grafikoa eta hobekuntza funtzionalak

- **www.eke.org euskal kulturaren atariaren birmoldaketa grafikoa**
Araudi grafiko berri baten finkatzea atari guziarentzat. Horrela, besteak beste, lehen orrialdea osoki aldatua izan da, eta orduz geroztik, webguneko « Bideoak », « Argazkiak », « Agenda » edota « Albisteak » ataletara zuzenki sartzeko aukera eskaintzen du.
- **[www.eke.org/eke](http://www.eke.org) Euskal kultur erakundearen webgune instituzionalaren birmoldaketa**
Araudi grafiko ezberdin baten sortzea EKeri dagokion azpi-domeinuarentzat. Ataleko edukien aberastea.
- **Atariaren hobekuntza funtzionalak**
Eduki berezien (agenda, argazkiak, bideoak...) irakurketa errazagoa ahalbideratzen duten teknika garapenak. Kultura egutegiaren berrantolaketa sailka eta gertakariak sarean ezartzeko formularioaren hobekuntza. Katalogo-atal dinamiko (bideoak, ikusgarriak, fonotekak) batzuen obratzea, erabiltzaileei bilaketak egiteko aukera ematen dietenak.

B - Sareko eduki numerikoen sorkuntza eta eguneraketa

Ataria egunero eguneratua da ipar Euskal Herriko kultura biziaren berri emateko, besteak beste Agenda eta Albistea atalen bidez (astero harpidetza bidez harpidedunei bidaliak direnak gainera).

Tresna eta eduki berri batzu obratu ditugu ere 2009an.

- **Multimedia atal berri batzuen sortzea**

Atal berri batzuen garatzea, erregularri sartuak diren eta sailkatuak izan daitezken multimedia eduki berriekin : « Bideogela » (han hemenka argitaratuak diren euskal kulturari buruzko bideoak), « Fonoteka » (EKEk edo EKEren partaideek egin soinu grabaketan bilduma), « Lekukotasunak » (EKEk euskal kulturaren inguruko pertsona batzuei egin elkarrizketan transkripzioa).

- **Amikuzeko ahozko memoriaren balorapena sarean**

Euskal kultur erakundeak Amikuzeko eskualdean bildu lekukotasunen bideo zatiak sareratu izan dira. Bideoak, elkarrizketatuak izan diren 30 lekukoen biografiez, zatien laburpenez eta garaiko argazkiez lagunduak dira. Bilaketa sistema batek lekukotasunen irakurketa errazten du (gaika, lekukoka, herrika, gako-hitzen arabera...).

- **www.batekmila.com webgunearen ber-egokitzea eta «Batekmila – Euskal munduak» erakusketaren edukiak sarean ezartzea** (Gipuzkoako Aldundiaren partaidetzarekin)

Izen bereko erakusketaren ibilaldiaren inguruan komunikatzeko erabili dugun www.batekmila.com webguneak munduan gaundiko euskal adierazpide artistikoen ataria izan nahi du (besteak beste, albiste batzuen sistema bati esker). Bestalde, Batekmila erakusketaren edukiak (argazkiak, bideoak, testuak...) webgune horretan ikusgai izanen dira flash aplikazio berezi bati esker. « Gure Munduak » aplikazioak (bisitariari bere euskal munduen ikuspegia argazki bidez partekatzeko aukera ematen dion sare sozialen antzeko sorkuntza berezia) 2009an asmatua izan den eta 2010eko ekainean estreinatuko den dispositibo hori osatuko du.

- **Ikusgarrigintza datu-basea sarean**

2009ko udaberrian hasi informazio bilketa lanaren ondotik, Euskal kultur erakundeak hiru zerbitzu berri sareratu ditu ipar Euskal Herriko kultura eragileak eta sorkuntza guneak hobe ezagutarazteko.

1/ Euskal kulturaren alorrean ari diren artisten eta ikusgarrigintza profesionalen errepertorioa (kultura elkarteak, erakasleak, agenteak, hedatzaileak, ikusgarri gelak, teknikariak...). Sailak : euskal kantua eta musika, bertsolaritza, euskarazko literatura, euskarazko ipuina, euskarazko antzerkia, euskal dantza, zirkoa eta karrikako arteak, arte bisualak). Denetan, 500 erreferentzia baino gehiago.

2/ Sorkuntzen katalogoa

2007tik goiti Euskal kultur erakundeak sustengatzen dituen eta 2009tik goiti hedatzeko prest diren **sorkuntzen katalogoa** (hamabost bat sorkuntza).

3/ Ipar Euskal Herriko ikusgarri gelen gida bat, horretarako ekipatuak diren ikusgarri gelak biltzen dituen, baina ere beste ekitaldi batzu hartzen ahal dituztenak (dantzaldi, apairu, hitzaldi...). Denetan, 30 bat areto.

C - Erreferentziamendua eta atariaren ikuspenaren hobekuntza

- **Atariaren eta loturiko beste webguneen erreferentziamenduari buruzko lana**
Kokapen natural hobe baten bilaketa bilatzaileetan, finkatu helburu batzuen arabera (hizkuntzaka, edukiak...). Erreferentziamenduaren aditu baten laguntza eta egokipen batzuen obratzea (bai teknikoki, bai idazketa moduari dagokionez) erreferentziamendua hobetzeko asmoz. Hilabetero aztertua den aginte-taula baten sortzea (bisita kopurua, bilatutako edukiak...)
- **Lan berezia atariaren ikuspena areagotzeko sare sozialetan**
Lan berezia www.eke.org ataria partaideen webguneetan agerrarazteko, sare sozialetan (Facebook, flickr, myspace...), bakoitzaren ekarpenekin elikatzen diren "wikipédia" antzeko sareetan...

www.eke.org - Zonbait datu 2009an:

- 126 albiste euskaraz eta frantsesez argitaratuak
- 879 gertakari kultura agendan sartuak, bi hizkuntzatan
- 180 albiste labur argitaratuak euskaraz eta frantsesez
- 203 191 bisita 2009an (+ %17,62 2008. urtearekin alderatuz)
- 755 934 orri ikusiak 2009an (+ %7 2008. urtearekin alderatuz)
- 967 harpidedun frantsesezko hedapen-zerrendari
- 1146 harpidedun euskarazko hedapen-zerrendari

4.2/ « Batekmila – Euskal munduak » erakusketaren inguruko bitartekaritza gauzatu eta animazioak antolatu

2009an, « Batekmila-Euskal Munduak » erakusketa ibili da :

- 2008ko azaroaren 17tik – 2009ko urtarrilaren 31ra : **Iruña**ko planetarioan.
- Uztailaren 15etik irailaren 16era : **Baion**ako euskal munseoan.
- Urriaren 8tik 22ra **Le Garric**-eko « Cap découverte musique » aretoan (81450)

Erakusketa ezarria izan den aldiro, animazio andana bat antolatua izan da :

Baionan :

- ▶ Ipuinak Koldo Amestoy-ekin.
- ▶ Maialen Errotabehere kantariaren kontzertua.
- ▶ Euskal kantuaz mintzaldia Pantxoia Etchegoin-ekin.

Le Garric-en :

- ▶ Maialen Errotabehere kantariaren kontzertua
- ▶ Christian Borda esku soinulariaren
- ▶ Sukila de Kanboko ziganteen desfilea
- ▶ Beñat Achiary-ren kontzertua.

4.3 / « Iparraldea XXI » dvd-a

Iparraldea eta honen kulturaren aberastasuna gazteei, eta bereziki hegoaldeko gazteei, hobeki ezagutaraztea, hara zein izan den "Iparraldea XXI", Euskal kultur erakundeak ekoiztuko duen 18 minutako filmaren erronka. DVD-aren ekoizpena 2010eko martxoan egingen da eta interneten ikusgai ere.

Iparraldea XXI dokumentalak, 18 minutuz, ezagutzen diren betiko klixek hausten ditu, lurraldeko (Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa) kultur errealitate garaikide batean murgildu nahian.

Bereziki Hegoaldeko gazteei zuzendua den ikus-entzunezko honek, Iparraldez beste ikuspegi dinamiko eta baikor bat zabaltzen du.

Egitasmoaren hastapenean, Donostiako karriketan bildu ikasle gazte batzuen iritziak aztertutak izan dira.

Iritzi horiek erakusten zuten Iparraldea hitzari loturik zeuden ezagutza mugatua eta klixek. "Iparraldea XXI" dokumentalak heien ikusmoldea aldatu behar lituzke.

Yves Sallaberry "Xala" pilotaria dokumentalaren gida dugu.

Iparralde guzia zeharkatzen du, itsas bazterretik Zuberoako mendietaraino, kultur eragile eta kirolzale gazteen gana joanez:

- Elixabet Aizager, **Euskal Herria Zuzenean festibalaren** lehendakaria
- Philippe Malvaux, **Pôle surf** guneko entrenatzailea
- Ihitz Iriart eta Maika Etxekopar, **"Amaren alabak"** taldeko kantariak
- Céline Pétrissans, **"Dantza hirian"** mugaz gaindiko festibalaren komunikazio arduraduna
- **Maiana Irigoyen eta Amets Arzallus**, bertsulariak
- Jon Eyherabide, **Mak** rap taldeko kantaria
- **Itxaro Borda** idazlea

Iparraldea XXI filma, Euskal kultur erakundearen ekoizpena da Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetzarekin eginga. **Medialab** ikus-entzunezko ekoiztetxearen obra hau euskaraz da.

Bertsioak azpituluekin badaude, frantsesez, espainolez, ingelesez eta katalanez. Interneten hedatua da www.iparraldea.info gunean, bideo plataforma ezberdinetan eta sare sozialetan (youtube, dailymotion, vimeo, blip, flickr, facebook...).

EKEren misioen ber-zehazketa

Euskal kultur erakundearen geroari begira, lau misiok ukanen dute lehentasuna : laguntza euskal kulturari dagozkion politika publikoen obragintzan, obralaritza erakunde partaideekin eraman egitasmo kolektiboentzat, ingenieritza lana eta laguntza kultura eragileei, egitasmo egituratzaileen obragintza. Euskal kultur erakundearen 2009ko Biltzar Nagusiak norabide horiek baieztatu ditu ; Euskal Herria 2020 lurralde egitasmoan sartuak izan dira.

Botere publikoek erabaki dute EKE bere misio berrietan laguntzea (lehenean bereziki). Karia hortara, bilkura ezberdinak iragan dira erakunde horietako kultura teknikariek. Hortik, ondorio nagusi bat agertu da : EKEren obragintza laguntzaile lana gai konkretu batean (euskal dantza) gauzatzeko beharra.

Paraleloki, kultura ingenieritzan berezitu azterketa bulego batek EKE lagunduko du, bere kokapen estrategiko berria zehazten eta esku-hartze modalitate berrien asmatzen (prozedurak, metodoak...), hala nola politiko publikoen laguntzari dagokionez, euskal kulturaren beharrak hobeki kontutan hartuak izan daitezzen.

Aipatzekoa da ere, 2010eko bigarren sei hilabeteetan, Euskal kultur erakundeak "kultura politika publikoen" arduradun bat hartuko duela.

Euskal kultur erakundeko partaideak

Abbadiako adixkideak	Ikas
Abd - Senpere	Ikas bi
Abotia	Ikherzaleak
Aek Baiona	Intxaurreta
Aintzidariak	Iparla Baigura komunikazioa
Akelarre	Iparra hegoa
Aldudarrak batasuna	Iparralai
Aldudarrak bideo	Iparraldeko abesbatzen elkarte
Anaigazteak	Iparraldeko dantzarien biltzarra
Andere seroraenea	Isturitz et Oxocelhaya
Antzerakia	Itsas begia
Argian	Itzal aktiboa
Arraga abesbatza	Jostakin
Arrokiaga	Kantiruki
Arrola	Khanta Xiberua
Ass sportive du Lycée St-Joseph	Kilikolo zirko
Association des Syrtes	Kimua Angelu
Atelier	Kitzikazan/k
Au fil du théâtre	Konpany beritza
Auñamendi	Lagunt eta maita
Azika	Lapurdi 1609
Begi argi	Le petit théâtre de pain
Bertsularien lagunak	Leinua
Biarritz culture	Les amis du jardin botanique
Biarritzeko jauziak	Les orgues d'Urrugne
Bil xokua	Maiatz
Burrunka	Maite dugulako
Centres musicaux ruraux	Maritzuli
Comité Izpegi	Musikari Donibane Lohitzun
Compagnie Les lézards qui bougent	Musiques en milieu scolaire
Dariola	MVC Polo Beyris
Distira	Office de tourisme / Ascain
Eihartzea	Oinak arin
Ekarle	Oldarra abesbatza
Elirale	Or Konpon
Eleka	Orai bat
Errobi promotions	OREKA
Euskal argentina	Orgue en Baigorri
Euskal etxea Barcelona	Ote lore
Euskal Haziak	Oxtikenekoak
Euskal Herria zuzenean	Oztibarreko antzerkia
Euskal irratiak	Parc aventure basque en Amérique
Euskal kantu txapelketa	Pariseko Euskal Etxea
Euskal konfederazioa	Perruketak
Euskaltzaindia	Pestacles et compagnie
Eusko ikaskuntza	Pinpulka
Euskoarkeologia	Pottoka dantzan
Etxahun	Seaska
Ezkandrai	Société des amis du Musée basque
Festival Baiona	Soinubila
FFPB	Sü azia
Foyer des jeunes de Bardos	Syndicat initiative de Sare
Foyer rural d'Aiciritz	Tamborrada St Jean le Vieux
Garapen kontseilua	Théâtre des Chimères
Garazikus	Théâtre du rivage
Garaztarrak	Théâtre du versant
Gatuzaina	Tokia
Goiz argi - Altzürükü	Traboules
Hatsa	Uda leku
Hatza	UEU
Hebentik	Ur begi
Herri kirolak - fédération jeux ruraux	Zabalik
Herri soinu	Zarena zarelako 2009
Herria	Zirikolatx Senpereko dantza taldea
Hiruki	Zirrimarra
Hondartza (Baiona)	Zpeiz mukaki
Ibaialde	ZTK